

KROKODILO, JIRAFa ETA EGUNDOKO SORPRESA

Testua eta ilustrazioak: DANIELA KULOT

Itzulpena: AINHOA IRAZUSTABARRENA BARRIOLA

Azal gogorrean koadernatua. 23 x 30 cm. 32 or. 16,50 €

[Krokodilo, Jirafa eta egundoko sorpresa](#) (euskara)

ISBN 978-84-9172-315-8. Album irudidunak. Egile lanak.

[Una gran sorpresa](#) (castellano)

ISBN 978-84-1343-198-7. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

[Unha gran sorpresa](#) (galego)

ISBN 978-84-1343-197-0. Álbum ilustrado. Demademora.

[Crocodilo e Girafa, uma grande surpresa](#) (português)

ISBN 978-989-749-166-5. Álbum ilustrado. Obras de autor/a.

Ama Jirafa pentsakor dago.

–Gaur bada zerbait –esan du.

–Bai –esan du Krokodilo aitak–. Nik ere irudipen hori dut.

Baina, zer ote?

–Kar, kar –barre txikia egin dute Krokirak eta Raffolok...

Egun arrunt bat izan zitekeena aventura zirraragarri bihurtuko da Jirafa eta Krokodiloren familiarentzat. Soka misteriotsu batek egundoko sorpresarekin amaituko den bidaiaren ibilbidea marraztuko du.


Daniela Kuloten liburu honen izenburuak jada iragartzen digu lehen orrialdetik irakurleen jakin-mina piztuko duen amaiera, enigma bat proposatzen baita, itxuraz etxeko txikien konplizitatearekin. Krokila eta Raffoloren parte-hartzeak islatzen du afektuek eta emozioek opari materialen gainetik dauden familia honetan haurrek duten protagonismoa.

Ibaia zeharkatuta, mendian gora, hiriko teilatuen gainetik hegan eta bere kaleetan barrena, txangoarekin bat egingo duten zenbait lagun agurtzeaz gain -ahatea, muxarra, zozoa...-, esperientzia berriak biziko dituzte eta txikiek helduen laguntza beharko dute zenbait trebezia praktikatzeko.

Eskarara itzulitako [«Krokodilo txikia maitemindu da»](#)

eta [«Krokodilo txikia, jirafa altua eta neurri kontuak»](#).

Ilanen ondotik, bildumaren jarraipenak tolerantziaren eta aniztasunarekiko errespetuari buruzko istorioak ekartzen jarraitzen du, animalia gizatiartu kutun eta dibertigarrien bidez. Proposamen estetikoari dagokionez, irudi koloretsuak eta pertsonaien adierazkortasuna nagusi izaten jarraitzen dute. Horretaz gain, lehenengo orrialdetik perspektiba zabalak eskaintzen dira, eta horrek errelatoaren dinamismoa indartzen duten aldibereko ekintzen errepresentazioa ahalbidetzen du.



■ **Gala:** familia eta aniztasuna; urtebetetzea.

■ **Adin egokia:** 3 urtetik aurrera.

■ **Nabarmentzekoak:** tolerantzia, afektuak eta emozioak vs. materialismoa; sorpresak, abenturak, bidaiak; ospakizunak eta jarduerak familian, bizitza soziala, auzokideak, komunikazioa, umorea; bildumako beste liburu batzuk: [«Krokodilo txikia maitemindu da»](#), [«Krokodilo txikia, jirafa altua eta neurri kontuak»](#), [«Una pareja diferente»](#) eta [«Una familia normal»](#); idazlearen beste lan batzuk: [«Bromas en la oscuridad»](#).

■ **Liburuaren lagina:**

<https://issuu.com/kalandraka.com/docs/krokodilo-jirafa-eta-egundoko-sorpresa-eusk>

Daniela Kulot

(Schongau, 1966)

1988an Arte Hezkuntzako ikasketak hasi zituen Augsburg-eko Unibertsitatean, eta ondoren diseinu grafikoa eta ilustrazioa ikasi zuen. 1993an margolari, ilustratzaile eta diseinatzaile gisa hasi zen lanean, freelance moduan. Municheko Arte Ederren Eskolan osatu zuen bere prestakuntza. Haur literaturako nazioarteko azoketan ibili zen, eta Thienemann argitaletxeak bere lanak argitaratzeko lehen aukera eman zion. Bere lanak ikusgai egon dira Bratislavako Nazioarteko Biurtekoan, eta Alemania, Estonia, Errusia eta Japoniako hirietan, besteak beste. Bere liburuak 30 hizkuntza baino gehiagotara itzuli dira.

<http://daniela-kulot.de>

